

# *Argibideak 4 ariketa.*

## *Bide-segurtasunerako itun soziala*

Trafiko-istripuak Euskadiko heriotza-eragilerik handiena dira 39 urtetik beherako pertsonen artean. Istripuen ondorioz larri zauritutako 100 pertsonatik 12, 15 eta 24 urte bitarteko gazteak dira, dagokiena baino bi aldiz gehiago alegia, biztanleriaren % 9 baino ez baitira adin-tarte horretako gazteak.

Ariketa honetan Itun bat, bide-segurtasunerako Itun soziala, lortzeko aukera emango digun debatea egingo dugu. Itun soziala izango denez, gazteek pairatzen duten istripu-tasaren arazoari konponbide egokia bilatzeko orduan garrantzitsuak diren eragile guztiek parte hartu beharko dute bertan. Lehenik eta behin gazteek eurek, baina baita familiek, komunikabideek, akademia- eta hezkuntza-munduak eta gizarte gaiez zein oro har gai publikoez arduratzen diren erakundeek ere.

Zatitu gela 5 taldetan. Talde bakoitza sektore bat izango da: talde batekoak politikariak izango dira, beste batekoak gazteak, beste batekoak publizistak, beste batekoak familiak, eta azken taldekoak autoeskolak izango dira.

Zuen rola kontuan hartuta, bost neurri proposatu beharko dituzue helburu jakin bat lortzeko: gazteek pairatzen duten istripu-tasa murriztea.

Talde guztiek beren proposamenak dituztenean, bateratu egingo ditugu eta debate bat hasiko dugu guztion artean 5 neurri onenak aukeratzeko. Neurri horiexek izango dira horman idatzi beharrekoak.

## **Iragarkia:** **Azken ordukoa**

**Azken ordukoa.**  
**Eta 19 urteko bi gazte hil dira trafiko-istripuz.**

Igandean, goizeko bostak aldera, herriko bi gazte hil dira eta beste bat larri dago, zauri sendaezinekin, trafiko-istripu bat dela eta.

Autoa bidetik atera eta segurtasun-horma baten kontra jo du.

Inpaktuaren ondorioz, bi gazte hil egin dira eta hirugarrenak traumatismo larriak jasan ditu. Berehala eraman dute ospitalera.

Gidariak positibo eman du alkoholemia-proban.

Herriko gazteen artean hildakoak eta zaurituak eragin dituen hirugarren istripua da hilabete honetan. Istripu guztiak gaez dira, festaren batetik itzultzean. Ba ote zegoen istripu horiek saihesterik?

---

## **Helburu:** **Gazteen istripu-tasa murrizteko.**

### **Politikariak**

Istripu-kopurua gutxitzeko legeak eta arauak plazaratzen dituzte politikariek. Alkohol-kontsumoa mugatu egin dute; gazteen gaueko aisialdiko establezimenduei murrizketak ezarri zaizkie; alkoholen eta drogen eraginean gida ez dezaten, gidarientzako hainbat neurri asmatu dituzte; abiadura mugatu egin dute, eta puntukako gida-baimena sortu. Baimendutako abiadura baino handiagoan ez ibiltzeko, radar gehiago jarri dira errepide-sarean, eta abiadura-muga errespetatzen ez duten gidariei isunak jartzen zaizkie.

***Politikari zareten aldetik, zer proposatzen duzue bide-segurtasuna hobetzeko?***

## **Iragarkia:** **Azken ordukoa**

**Azken ordukoa.**  
**Eta 19 urteko bi gazte hil dira trafiko-istripuz.**

Igandean, goizeko bostak aldera, herriko bi gazte hil dira eta beste bat larri dago, zauri sendaezinekin, trafiko-istripu bat dela eta.

Autoa bidetik atera eta segurtasun-horma baten kontra jo du.

Inpaktuaren ondorioz, bi gazte hil egin dira eta hirugarrenak traumatismo larriak jasan ditu. Berehala eraman dute ospitalera.

Gidariak positibo eman du alkoholemia-proban.

Herriko gazteen artean hildakoak eta zaurituak eragin dituen hirugarren istripua da hilabete honetan. Istripu guztiak gaez dira, festaren batetik itzultzean. Ba ote zegoen istripu horiek saihesterik?

---

## **Helburu:** **Gazteen istripu-tasa murrizteko.**

### **Gazteak**

Gazteoi irtetea gustatzen zaigu, asteburuan parrandan ibiltzea, diskotekara, kontzertuetara... joatea. Taldean ibiltzea gustuko dugu, eta garraio publikoan joatea “ernegagarria” da, beti ordutegiei adi ibili behar, aisialdia garraioaren mende... Hoberena da autoa duen edo gurasoek uzten dioten norbaitekin joatea, etxera nahi dugunean itzultzeko, askotan arriskutsua den arren, gidariak edan egin duelako eta istripua izateko arriskua dagoelako.

**Zer egin dezakegu gazteok? Zer irtenbide proposatzen diguzue istripu-arriskua saihesteko?**

## **Iragarkia:** **Azken ordukoa**

**Azken ordukoa.**  
**Eta 19 urteko bi gazte hil dira trafiko-istripuz.**

Igandean, goizeko bostak aldera, herriko bi gazte hil dira eta beste bat larri dago, zauri sendaezinekin, trafiko-istripu bat dela eta.

Autoa bidetik atera eta segurtasun-horma baten kontra jo du.

Inpaktuaren ondorioz, bi gazte hil egin dira eta hirugarrenak traumatismo larriak jasan ditu. Berehala eraman dute ospitalera.

Gidariak positibo eman du alkoholemia-proban.

Herriko gazteen artean hildakoak eta zaurituak eragin dituen hirugarren istripua da hilabete honetan. Istripu guztiak gauez dira, festaren batetik itzultzean. Ba ote zegoen istripu horiek saihesterik?

---

## **Helburu:** **Gazteen istripu-tasa murrizteko.**

### **Publizistak**

Ibilgailu bat saltzeko, eroslegaia erakarri behar dugu. Gure produktua begiko izatea nahi dugu; segurtasun-sentsazioa ematea atsegin dugu, saltzen dena potentzia, zaldiak eta, batez ere, erosotasuna diren arren.

***Publizista zareten aldetik, zer egin behar duzue ibilgailuak saltzeko iragarkiak hobetu eta, aldi berean, istripu-arriskua gutxitzen laguntzeko?***

## **Iragarkia:** **Azken ordukoa**

**Azken ordukoa.**  
**Eta 19 urteko bi gazte hil dira trafiko-istripuz.**

Igandean, goizeko bostak aldera, herriko bi gazte hil dira eta beste bat larri dago, zauri sendaezinekin, trafiko-istripu bat dela eta.

Autoa bidetik atera eta segurtasun-horma baten kontra jo du.

Inpaktuaren ondorioz, bi gazte hil egin dira eta hirugarrenak traumatismo larriak jasan ditu. Berehala eraman dute ospitalera.

Gidariak positibo eman du alkoholemia-proban.

Herriko gazteen artean hildakoak eta zaurituak eragin dituen hirugarren istripua da hilabete honetan. Istripu guztiak gauez dira, festaren batetik itzultzean. Ba ote zegoen istripu horiek saihesterik?

---

## **Helburu:** **Gazteen istripu-tasa murrizteko.**

### **Familia**

Haurrei txikitatik eman behar zaie bide-segurtasunari buruzko heziketa. Gurasoak, aitona-amonak, anai-arreba zaharrenak – oro har, helduak – dira txikienen eredu. Beharrezkoa da jardun aurretik hausnartzea, eta gure haurrei eredu positiboak ematea.

***Guraso zareten aldetik, nola hezi behar zenituzkete zuen seme-alabak trafiko-istripuen kontua hobetzeko?***

## **Iragarkia:** **Azken ordukoa**

**Azken ordukoa.**  
**Eta 19 urteko bi gazte hil dira trafiko-istripuz.**

Igandean, goizeko bostak aldera, herriko bi gazte hil dira eta beste bat larri dago, zauri sendaezinekin, trafiko-istripu bat dela eta.

Autoa bidetik atera eta segurtasun-horma baten kontra jo du.

Inpaktuaren ondorioz, bi gazte hil egin dira eta hirugarrenak traumatismo larriak jasan ditu. Berehala eraman dute ospitalera.

Gidariak positibo eman du alkoholemia-proban.

Herriko gazteen artean hildakoak eta zaurituak eragin dituen hirugarren istripua da hilabete honetan. Istripu guztiak gauez dira, festaren batetik itzultzean. Ba ote zegoen istripu horiek saihesterik?

---

## **Helburu:** **Gazteen istripu-tasa murrizteko.**

### **Autoeskolak**

Ibilgailu bat gidatzeko behar den teoria eta praktika irakasten dizkigute autoeskoletan. Azterketa gainditzeko ikasleak prestatzea da irakasleen betekizuna.

***Nolakoa litzateke autoeskola perfektua, jendea azterketarako prestatzeaz gain, gidatze lasai eta tolerantetagoa eskainiko lukeena?***